

ASTIALDI-JARDUERAREN ERANTZULEAREN ADIERAZPENA

Izen-abizenak:

NAN:.....

Entitatearen Izena:

Entitatearen IFZ:

Astialdi-jarduera:

Hasierako data eta amaierako data

Aipatutako astialdi-jardueraren erantzulea naizen aldetik,

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DUT

1.- Gure erakundeak jarduera-programa betetzen dela bermatzeko behar diren neurriak hartuko dituela, eta inola ere ez dela ordenamendu juridikoaren aurkakoa izango:

- [170/1985 Dekretua](#)
- [EAEko 2/2022 Gazteria Legea](#)
- [EAEko Haur eta Nerabeen 2/2024 Legea](#)
- [8/2021 Lege Organikoa. Haurrak eta nerabeak indarkeriatik babestekoa \(LOPVI\)](#)
- [3/2018 Lege Organikoa, Datu pertsonalen babesari buruzkoa](#)
- [45/2015 Legea, urriaren 14koa, Boluntariotzarena.](#)
- [Gipuzkoako esku-hartze sozialaren hitzarmen kolektiboa.](#)

2.- Zehazki betetzen dituela, honakoak:

- Udaleku eta kanpaldiei buruzko 170/1985 Dekretuaren 2. artikulua: jarduerako arduradun-taldeak **araudiaren arabera kide-kopurua izango ditu, dagozkien tituluekin.**

- Udaleku eta kanpaldiei buruzko 170/1985 Dekretuaren 3. artikulua: entitateak dagokion **administrazioari eman dio berak antolatutako jardueraren berri.**
- Udaleku eta kanpaldiei buruzko 170/1985 Dekretuaren 5. artikulua: jarduera burutuko den instalazio eta ekipamenduek haurren eta nerabeen ongizatea eta segurtasuna bermatzen dituzten baldintzak betetzen dituzte. Gainera, jardueran parte hartuko duten pertsona guztiek dituzte **Gizarte Segurantzako bidaiatxartela** edo antzekoa, **Erantzukizun Zibileko Aseguruaren** indarreko poliza eta **adingabeen gurasoek (edo legezko tutoreak) idatziz emandako baimena.**
- Haurrak eta nerabeak indarkeriatik babesteko 8/2021 Lege Organikoaren (LOPIVI) 48. artikulua eta EAEko Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearen 137. eta 138. artikulua: Jarduerarako **babesordezkari bat izendatu da** eta sor daitezkeen gertakarienezako **jardun-protokoloak prestatu dira.**
- Haurrak eta nerabeak indarkeriatik babesteko 8/2021 Lege Organikoaren (LOPIVI) 32. artikulua eta EAEko Haur eta Nerabeen 2/2024 Legearen 314. artikulua: Adin txikiko parte-hartzaileekin ohiko harremana izango duten pertsona guztiek dute **sexu delituen aurrekari penalik ez duela jasotzen duen ziurtagiri negatiboa eta eguneratua** (urte bete baino gutxiago).

3.- Dokumentu honetan agertzen diren datu guztiak egiazkoak direla eta aitortpen hau egiten duen pertsonak erakunde antolatzailearen ordezkaritza duela.

4.- Erakundearen arduradunek Gipuzkoako Foru Aldundiak Gipuzkoangazte webgunean prestatuta duen astialdiari buruzko aholkularitzarako atalean jasotakoa irakurri dutela.

.....-(e)n, 20__koaren.....(e)an

Sin: